

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

## EUSKO JAURLARITZA

## INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

## Industria Administrazioaren Arabako Lurralde Ordezkaritza

**Jendeaurrean argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Arabako Vitoria-Gasteiz eta Burgelu udal-mugarteetan, «Cluster ALI I-II» parke eolikorako alde aurreko administrazio-baimenaren eskaera**

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), «Cluster ALI I-II» parke eolikorako aurkeztutako alde aurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Eskatzailea: Premier Espf Ipaz Haizea 11 , SL (IFK: B56201478), bere izenean eta Premier Espf Ipaz Haizea 12, SLren (IFK: B56202039) ordezkarri gisa.
- Tartean dauden udal-mugarteak: Vitoria-Gasteiz eta Burgelu (Araba).
- Haize-sorgailuen kopurua: 2.
- Instalatu den potentzia gordina: 9,98 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

POLIGONALAREN UTM KOORDENATUAK (ETRS89 HUSO 30)		
ERPINA	UTM X	UTM Y
1	536779	4745551
2	538180	4745468
3	536748	4744660
4	538150	4744611

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeit eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Industria, Arabako Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu>.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 3a

*Arabako lurralde-ordezkarria ez dagoenez, eta Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren d) eta e) letretan ezarritakoarekin bat etorritik. Trantsizio Energetikoko sailburuordea*  
**IRANTZU ALLENDE FERNÁNDEZ DE ERIBE**